Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urriaren 27a, ostirala — 208 — Viernes, a 27 de octubre de 2023

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA

Gipuzkoako abeltzaintza sektorean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatiko (GHE) aparteko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak 2023ko urriaren 24ko bileran honako erabakia hartu du:

Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa (GHE) animalien gaixotasun birikoa da, ez da kutsagarria, eltxoek transmititzen dute, eta behi aziendari eta oreinei eragiten die batez ere.

2023ko irailaren 5ean detektatu zen lehen aldiz GHEaren birusa Gipuzkoako abeltzaintza ustiategietako behien artean. Une horretatik aurrera, gaixotasuna oso kutsakorra izan da, eta lurraldean zehar hedatuz joan da, animalia eta ustiategi askori eraginez. Egoera horrek kalte ekonomiko larria eragin die ustiategien titularrei, faktore hauen ondorioz: animalien errendimenduak murriztea, osasun tratamenduaren eta osasun arretaren kostuak handitzea eta heriotza tasa handitzea.

Osasun krisia hasi zenetik, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntza/jarraipena eta laguntza ekonomikoa emateko ekintzak abian jartzea erabaki zuen, GHEk Gipuzkoako ustiategietan duen eragin sozioekonomikoa murrizteko.

Gaur egungo egoera ustiategi horietako abeltzaintza jardueran izaten ari den eragina kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da laguntza lerro berri bat bideratzea, jarduera horiei eusteko helburuarekin, indarrean dagoen araudiak ematen dituen aukerak erabiliz.

Laguntza hauek «minimis» erregimenaren barruan daude, 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EE) Erregelamenduak (nekazaritzako produktuak ekoizteko sektorearen «minimis» laguntzei EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoak) xedatutakoa.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 2.1.b) artikuluan dirulaguntzaren kontzeptuari buruz jasotako aukeren artean, eman beharreko laguntzak, kasu honetan, ez daude lotuta proiektu bat gauzatzearekin edo jarduera bat burutzearekin, egoera batean gertatzearen mende baizik; hain zuzen ere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Erabaki honen bidez onesten diren oinarrietan ezartzen da laguntzak eskatzeko Administrazioarekin harremanak nahitaez izan behar direla bitarteko elektronikoen bidez, kontuan hartuta laguntza eta sektoreko kontrolaren arloko araudiak jada ezartzen dizkiela harreman elektronikoak hartzaileei, informazio betebeharrak betetzeko, eta harreman elektroniko horiek ahalbidetzen dituen ohiko ekipamendua badagoela.

Laguntza lerroa finantzatzeko, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren aurtengo aurrekontuetan 400.000,00 euro daude jasota.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL VERDE

Bases reguladoras y convocatoria de 2023 de las ayudas extraordinarias al sector ganadero de Gipuzkoa afectado por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE).

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 24 de octubre de 2023, ha adoptado el siguiente acuerdo:

La Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE) es una enfermedad vírica animal no contagiosa, transmitida por mosquitos, que afecta principalmente al ganado vacuno y a los ciervos.

El 5 de septiembre de 2023 se detectó por primera vez la presencia del virus en vacunos pertenecientes a explotaciones ganaderas de Gipuzkoa. A partir de ese momento, la enfermedad se ha mostrado sumamente contagiosa y se ha ido extendiendo por todo el Territorio, afectando a un elevado número de animales y explotaciones del Territorio. Esta situación se traduce en un considerable perjuicio económico para los titulares de las explotaciones como consecuencia de la reducción en los rendimientos animales, el aumento en los costes por tratamiento y atención sanitaria, y el incremento de la mortalidad.

Desde el comienzo de la crisis sanitaria, el Departamento de Equilibrio Territorial Verde decidió poner en marcha acciones de acompañamiento/seguimiento y ayuda económica al sector agroganadero, con el objeto de reducir el impacto socioeconómico de la EHE en las explotaciones de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta el impacto de la situación actual en la actividad ganadera de dichas explotaciones, resulta necesario el establecimiento de una nueva línea de ayudas, con el objetivo de apoyar el mantenimiento de dicha actividad haciendo uso de las opciones contempladas en el marco jurídico vigente.

Estas ayudas están acogidas al régimen de minimis establecido en el Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola.

Dentro de las opciones que respecto al concepto de subvención establece el artículo 2.1.b) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las ayudas a conceder no están sujetas en este caso a la ejecución de un proyecto o la realización de una actividad, sino a la concurrencia de una situación, en la que se encontrarán quienes cumplan los requisitos establecidos en las bases.

Se establece en las bases a aprobar mediante este acuerdo la obligatoriedad de relacionarse por medios electrónicos con la Administración para la solicitud de las ayudas, teniendo en cuenta que la normativa en materia de ayuda y control del sector ya impone relaciones electrónicas a sus destinatarios/as para cumplir con sus obligaciones de información y se cuenta con equipamiento habitual que permite dichas relaciones electrónicas.

Para la financiación de la línea de ayudas, en los presupuestos del Departamento de Equilibrio Territorial Verde del presente ejercicio se han consignado un total de 400.000,00 euros.

EK\CV GAO-I-2023-07923

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak onestea.

Dirulaguntza lerro hau ez dago sartuta 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE). Beraz, lerroa ezarri aurretik, han sartu behar da.

Hori horrela, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Sartzea Gipuzkoako abeltzaintza sektorean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatiko (GHE) aparteko laguntzen lerroa 2020-2023 aldirako Diru laguntzen Plan Estrategikoan (DLPE).

Bigarren. Onestea Gipuzkoako abeltzaintza sektorean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatiko (GHE) aparteko laguntzen oinarri arautzaileak, behi azienda (haragia, esnea, misto, gizendegiak eta ganadu suharra) azpisektore edo eremuan.

Oinarri arautzaileak erabaki honen I. eranskinean jaso dira.

Hirugarren. Onestea dirulaguntza horien 2023ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jaso dena.

Laugarren. Baimentzea laurehun mila euroko gastua (400.000,00 €), 2023ko deialdiari aurre egiteko, 1.0910.100.470.00.13.2023 kontu sailaren kargura.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Bosgarren. Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita BI hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko urriaren 24a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (7923)

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

1. Dirulaguntzen objektua.

Oinarri hauen objektua da dirulaguntzak ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko abeltzaintza azpisektore edo eremu ezberdinetan abeltzaintza jarduerari eusteko, dagozkien ustiategiei laguntzeko helburuarekin eta, horrela, Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatik (GHE) sortutako krisiaren geroztik ustiategi horiek izaten ari diren zailtasun sozioekonomikoak arintzeko: behi azienda (haragia, esnea, mistoa, gizendegiak eta ganadu suharra).

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

La presente línea de subvención no se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES). Por tanto, previamente a su establecimiento, procede su inclusión.

En su virtud, este Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde y previa deliberación,

ACUERDA

Primero. Incluir en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) las ayudas extraordinarias al sector ganadero de Gipuzkoa afectado por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE).

Segundo. Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas extraordinarias al sector ganadero de Gipuzkoa afectado por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE), referidas al subsector o ámbito del ganado vacuno (carne, leche, mixto, cebo y bravío).

Estas bases reguladoras se adjuntan al presente acuerdo como anexo I.

Tercero. Aprobar la convocatoria de 2023 de dichas ayudas; se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

Cuarto. Autorizar un gasto por importe de cuatrocientos mil euros (400.000,00 €), para hacer frente a la convocatoria de 2023 de las citadas ayudas, con cargo a la partida presupuestaria 1.0910.100.470.00.13.2023.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Quinto. Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo surtirán efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 24 de octubre de 2023.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (7923)

ANEXO I

BASES REGULADORAS GENERALES

1. Objeto de las subvenciones.

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de subvenciones para el mantenimiento de la actividad ganadera en los subsectores o ámbitos del Territorio Histórico de Gipuzkoa que a continuación se indican, con la finalidad de apoyar a esas explotaciones y paliar de esa manera las dificultades socioeconómicas que dichas explotaciones vienen experimentando a partir de la crisis originada por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE): ganado vacuno (carne, leche, mixto, cebo y bravío).

EK\CV GAO-I-2023-07923

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duten gertakariak:

— Animalien heriotza.

— Gaixotasunaren ondorioz, animalien ekoizpen eta/edo ugalketa egoeran izandako ondorioak edo sekuelak.

2. Dirulaguntzen onuradunak.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuraduntzat hartuko dira oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak eta ondoko hauek betetzen dituzten eskatzaileak:

— Onuradun izateko debekurik ez izatea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotakoaren arabera.

— Gipuzkoako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatutako abeltzaintza ustiategien titularrak edo titularkideak izatea.

Eskaera bakarra onartuko da pertsona onuradun bakoitzeko.

3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Eskaerak, erantsi beharreko gainerako dokumentazioarekin batera, nahitaez aurkeztuko dira Internet bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarira sartuz sinadura elektronikoaren edo pasahitz operatiboa erabilita, horretarako eskuragarri dagoen berariazko formularioa erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira.

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

Eskaerak aurkezteko epea eta horri erantsi beharreko dokumentazioa deialdian ezarriko dira.

4. Interesdunek aurkeztu beharreko agiriak.

Interesdunek eskubidea dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dauden edo beste edozein administrazioak egindako dokumentuak ez aurkezteko. Administrazio honek dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua). Dokumentazioa lortzea ezinezkoa bada, interesdunari, salbuespen gisa, dokumentua aurkezteko eskatu ahal izango zaio.

Dirulaguntza lerro honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztatuko dituen betekizunak plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae-Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez, dagokion deialdian ezarriko dira.

Pertsona edo entitate eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5. Akatsak zuzentzea.

Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun balioduneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

6. Emateko prozedura.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 20.2. artikuluan ezarritakoa-

Hechos que dan derecho a subvención:

— Muerte de animales.

— Repercusiones o secuelas en el estado productivo y/o reproductivo de los animales como consecuencia de la enfermedad.

2. Personas beneficiarias.

Tendrán la consideración de beneficiarias de las subvenciones reguladas en las presentes bases las personas solicitantes que cumplan los requisitos que se establecen en estas bases, además de:

— No estar incursas en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Ser titulares o cotitulares de explotaciones de ganado vacuno inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias de Gipuzkoa.

Únicamente se aceptará una solicitud por cada persona beneficiaria.

3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes, junto con el resto de la documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

El plazo de presentación de solicitudes y la documentación que deba acompañarlas se fijarán en la convocatoria.

4. Documentación a aportar por las personas interesadas.

Las personas interesadas tienen derecho a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Esta Administración podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello (art. 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre). En el supuesto de imposibilidad de recabar la documentación, podrá requerirse excepcionalmente a la persona interesada su aportación.

Los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa verificará en esta línea de subvenciones a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae-nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público se establecerán en la correspondiente convocatoria.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quien deba presentar la documentación.

5. Subsanación.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

6. Procedimiento de concesión.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Te-

EK\CV GAO-I-2023-07923

ren arabera, laguntzen helburua kontuan hartuta (Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoak sortutako ondorio negatiboak konpentsatzea, ezarritako baldintza betetzen dituzten guztiei), ez da bidezkoa eskaerak konparatzea eta horien arteko lehentasuna ezartzea; beraz, dirulaguntzak elkarren arteko lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, betiere, aurrekontuaren mugen barruan. Dirulaguntzak kopuru hori baino handiagoak badira, banaketa proportzionalki egingo da. Eskatutako laguntzak kopuru hori baino handiagoak badira, banaketa proportzionalki egin ahal izango da.

7. Finantzazioa.

Dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du dirulaguntzak aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura izango diren.

8. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.

Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuari dagokio. Zerbitzu horrek, ofizioz, proposamena formulatzeko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko behar diren jarduketa guztiak egingo ditu.

9. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko dira zehaztutako aurrekontu-baliabideak eta dirulaguntzak kuantifikatzeko irizpideak. Onartutako zenbatekoa ez da inoiz 15.000,00 eurotik gorakoa izango pertsona onuraduneko. Laguntzen zenbatekoa honela kalkulatuko da:

9.1. Animaliaren heriotzagatiko laguntza moduluak, produkzio orientazioaren, sexuaren, adinaren eta karta genealogiko osoaren arabera.

Behi azienda, haragitarako, hazteko edo suharra	*Genealogia karta (€)*	*Genealogia kart. gabe (€)*
Arrak eta emeak, 3 hilabete baino gutxiagokoak	500	380
Arrak eta emeak, 3-6 hilabete artekoak	600	500
Arrak eta emeak, 6-12 hilabete artekoak	800	550
Arrak, 12-24 hilabete artekoak	2.000	1.250
Arrak, 2 urte gorakoak	2.500	1.750
Emeak, 12-30 hilabete artekoak	1.400	1.100
Emeak, 30 hilabete-8 urtekoak	1.600	1.150
Emeak, 8-12 urtekoak	1.200	950
Emeak, 12 urte gorakoak	800	600

Esnetarako behi azienda	*Genealogia karta (€)*	*Genealogia kart. gabe (€)*
Arrak eta emeak, 6 hilabete baino gutxiagokoak	100	100
Emeak, 6-12 hilabete artekoak	490	275
Emeak, 12-24 hilabete artekoak	1.400	1.000
Emeak, 24-60 hilabete artekoak	1.600	1.100
Emeak, 5 urte gorakoak	800	500

Laguntza jaso ahal izateko, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuari jakinarazi behar zaio ustiategian GHEaren sintomatologia bateragarria duen kasu bat gutxienez egotea.

9.2. Gaixotasuna gainditu ondoren, animalien ekoizpen eta/edo ugalketa egoeran izandako ondorio edo ondorioengatiko laguntzak.

rritorio Histórico de Gipuzkoa, dada la finalidad de las ayudas (dirigida a compensar, a todas las personas que cumplan los requisitos previstos, las consecuencias negativas de la crisis originada por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica), no procede establecer una comparación y prelación entre las solicitudes, por lo que la concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia no competitiva, dentro de los límites del crédito existente. En el caso de que las ayudas solicitadas superen este importe, podrá aplicarse un prorrateo.

7. Financiación.

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

8. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.

La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Servicio de Ayudas y Registros del Departamento de Equilibrio Territorial Verde, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta.

9. Cuantía de las ayudas.

El importe de la subvención se fijará teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de cuantificación de las subvenciones. El importe aprobado en su conjunto por persona beneficiaria en ningún caso superará los 15.000,00 euros. La cuantía de las ayudas se calculará del siguiente modo:

9.1. Módulos de ayuda por muerte del animal en función de su orientación productiva, sexo, edad y disposición carta genealógica completa.

Bovino carne, cebo o bravío	*Carta geneal. (€)*	*Sin Carta geneal. (€)*
Machos y hembras hasta 3 meses	500	380
Machos y hembras de 3 hasta 6 meses	600	500
Machos y hembras de 6 hasta 12 meses	800	550
Machos de 12 hasta 24 meses	2.000	1.250
Machos de más de 2 años	2.500	1.750
Hembras de 12 hasta 30 meses	1.400	1.100
Hembras de 30 meses hasta 8 años	1.600	1.150
Hembras de 8 hasta 12 años	1.200	950
Hembras de más de 12 años	800	600

Bovino de leche	*Carta geneal. (€)*	*Sin Carta geneal. (€)*
Machos y hembras hasta 6 meses	100	100
Hembras de 6 hasta 12 meses	490	275
Hembras de 12 hasta 24 meses	1.400	1.000
Hembras de 24 hasta 60 meses	1.600	1.100
Hembras de más de 5 años	800	500

Para tener acceso a esta ayuda debe haberse notificado al Departamento de Equilibrio Territorial Verde la existencia de al menos un caso con sintomatología compatible de EHE en la explotación.

9.2. Ayudas por repercusiones o secuelas en el estado productivo y/o reproductivo de los animales una vez superada la enfermedad.

EK\CV GAO-I-2023-07923

Laguntza hauek ordaintzeko zenbatekoa, guztira, 9.1 oinarrian aurreikusitako animalien heriotzagatiko laguntzak finantzatzeko erabili ez den aurrekontu zuzkiduraren zatia izango da.

Laguntza, 2023ko irailaren 1ean 10 abelburu baino gehiago dituzten ustiategiei emango zaie, baldin eta egiaztatzen badute albaitariaren laguntza jaso dutela GHEarekin bateragarria den sintomatologia tratatzeko.

Laguntzaren zenbatekoa 150 eurokoa izango da albaitaritza errezeta bidezko tratamendua jaso duten behi bakoitzeko.

10. Dirulaguntzak emateko ebazpena.

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak hartuko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpenak eskatzaileak identifikatuko ditu; dirulaguntza jasoko dutenentzat ebazpenak ezarriko du emandako laguntzaren zenbatekoa. Eskaera bati dirulaguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein den adieraziko da.

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita; epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik. Hala ere, ebazteko epea zehaztuko da, halaber, oinarri hauetan araututako laguntzak jasotzen diren Aldi Baterako Esparruan laguntzak emateko epeari buruz ezarritakoaren arabera.

11. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek dirulaguntza onartzeak esan nahi du martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetatik ondorioztatutakoak bete behar dituztela.

12. Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako xede bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, direla estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak: betiere ez badira dagokion jarduketaren kostua edo europar araudiak ezarritako mugak gainditzen; eta horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

Oinarri hauetan jasotakoekin bateragarriak diren dirulaguntzak jaso dituzten onuradunek laguntzak ematen dituen organoari jakinarazi beharko diote modu frogagarrian, hala legokiokeen kasuan, egindako itzulketaren agiriaren kopia erantsita.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

13. Ordainketa.

Dirulaguntzak ematen diren aldi berean ordainketa agindu ko da, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

La cuantía total destinada a sufragar estas ayudas se corresponderá con la parte de la dotación presupuestaria no utilizada en la financiación de las ayudas por muerte de animales, previstas en la base 9.1.

Esta ayuda se concederá a explotaciones con un censo superior a 10 cabezas de ganado vacuno a 1 de septiembre de 2023, que acrediten haber recibido asistencia veterinaria para el tratamiento de sintomatología compatible con la EHE.

La cuantía de la ayuda será de 150 euros por cada uno de los vacunos que hayan recibido tratamiento con expedición de receta veterinaria.

10. Resolución de concesión.

La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

La resolución identificará a las personas solicitantes, estableciendo para aquellos a los que se conceda subvención el importe de la ayuda concedida. Para aquellas solicitudes a las que se deniegue la subvención se indicará la causa de dicha denegación.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses, a contar a partir de la publicación de la convocatoria; transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo. No obstante lo anterior, el plazo de resolución vendrá asimismo determinado por lo establecido respecto al plazo de concesión de ayudas en el Marco Temporal al que se acogen las reguladas en estas bases.

11. Obligaciones de las entidades beneficiarias.

La aceptación de la subvención por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las que se desprenden de las presentes bases.

12. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.

Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el costo de las actuaciones subvencionadas ni los límites establecidos en la normativa comunitaria, y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

La persona beneficiaria que obtuviere una subvención compatible con las ayudas contempladas en estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente, acompañando copia de la carta del reintegro que, en su caso, hubiera realizado.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

13. Pago.

El pago de las ayudas se ordenará de forma simultánea a su concesión, después de verificar que se cumplen los requisitos para optar a las mismas.

EK\CV GAO-I-2023-07923

14. Dirulaguntzak itzultzea.

Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 35. artikuluan ezarritakoari, eta hori garatzeko erregelamenduko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraiki; eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

15. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzei, bertan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

Era berean, arautuko dira abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EE) Erregelamendua (nekazaritzako produktuak ekoizteko sektorearen «minimis» laguntzei EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoa) xedatutako «minimis» erregimenaren barruan (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24a).

II. ERANSKINA

Gipuzkoako abeltzaintza sektorean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatiko (GHE) aparteko laguntzak (deialdia).

1. Oinarri araultzaileak.

Gipuzkoako abeltzaintza sektorean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoarengatiko (GHE) aparteko laguntzen oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak 2023ko urriaren 24ko erabakiaren bitartez onetsitakoak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi honekin batera argitaratutakoak dira.

2. Baldintzak eta onuradunak.

1. atalean aipatutako erabakian onartutako oinarrien artean, bigarrenean xedatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonek lortu ahal izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak.

GHEarekin bateragarria den sintomatologia duen behi aziendako kasu bat gutxienez detektatu den ustiategien eskaerak baino ez dira onartuko, 2023ko irailaren 1etik deialdi honetan eskaerak aurkezteko jasotako epearen amaiera datara bitartean.

3. Aurrekontu kredituak.

Deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura guztira 400.000,00 eurokoa da, 1.0910.100.470.00.13.2023 kontu sailaren kargura.

4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Laguntza eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen den egunetik 2023ko azaroaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dira, egun hau barne.

Eskaerak, erantsi beharreko gainerako dokumentazioarekin batera, nahitaez aurkeztuko dira Internet bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarira sartuz sinadura elektronikoaren edo pasahitz operatiboa erabilita, horretarako eskuragarri dagoen berariazko formularioa erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria 23/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira.

14. Reintegro de las subvenciones.

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la obligación de reintegrar la subvención, total o parcialmente, junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

15. Normativa aplicable.

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Estarán sujetas, asimismo, al Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola (DOUE de 24 de diciembre de 2013).

ANEXO II

Ayudas extraordinarias al sector ganadero de Gipuzkoa afectado por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE) (convocatoria).

1. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras para la concesión de las ayudas extraordinarias al sector ganadero de Gipuzkoa afectado por la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica (EHE), son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de octubre de 2023 y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con esta convocatoria.

2. Requisitos y personas beneficiarias.

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente convocatoria aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos en la base reguladora segunda, de las aprobadas mediante el acuerdo citado en el apartado 1.

Solo se admitirán aquellas solicitudes presentadas por ganaderos en cuyas explotaciones se haya detectado al menos un caso de vacuno con sintomatología compatible con EHE, en el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2023 y la fecha de finalización del plazo para presentación de solicitudes recogido en esta convocatoria.

3. Créditos presupuestarios.

La dotación presupuestaria para esta convocatoria asciende a la cantidad total de 400.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0910.100.470.00.13.2023.

4. Forma y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes de ayuda podrán presentarse desde la fecha de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 27 de noviembre de 2023 inclusive.

Las solicitudes, junto con el resto de la documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

EK\CV GAO-I-2023-07923

Deialdiaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaerak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakiaren arabera (https://egoitza.gipuzkoa.eus), onuradun izaera lortzeko inongo debekurik ez duela erantzukizunpeko adierazpena jasoko du, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak,12. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

1. Animaliaren heriotzagatiko laguntzak:

— Inprimaki normalizatua, 2023ko irailaren 1etik ustiategian GHEaren ondorioz hildako animalien belarritako zenbakiak zehazten dituena, eta animaliek Genealogia Karta duten ala ez adierazten duena.

2. Animalien ekoizpen eta/edo ugalketa egoeran ondorioak edo sekuelak izateagatiko laguntzak:

* Inprimaki normalizatua, GHEaren aurka tratamendua jaso duten animalien belarritako zenbakiak zehazten dituena.

* GHEaren tratamendurako albaitari laguntza eman zuen albaitariak 2023ko irailaren 1etik aurrera emandako albaitaritzako errezeta bat, tratamendu hori jaso zuten animalia bakoitzeko.

* Albaitaritzako errezetak tratatutako animalien belarritako zenbaki osoak jasotzen ez baditu, eskatzaileak agiri normalizatua erantsi beharko du, albaitariak sinatuta. Agiri horretan adieraziko da aurreko atalean aipatutako errezetak GHEarekin bateragarria den sintomatologia duten animalien tratamendurako eman zirela, eta horien belarritako zenbakia.

Gainerakoan, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta laguntzen zenbatekoak zehazteko, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak egiaztatuko ditu, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae-Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

— Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

— Gipuzkoako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatzea.

— Animaliak Banaka Identifikatzeko Erregistroan dagoen informazioa.

— Ustiategian hil diren animaliak jasotzeko eta suntsitzeko datu basea.

— GHEaren ondorioz jakinarazitako kasuen eta hildakoen datu basea.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

6. Argitalpena.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

La información de la convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

5. Documentación a presentar.

La solicitud, conforme al formulario disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), incluirá la declaración responsable de no hallarse incursa la persona solicitante en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Ayudas por muerte del animal:

— Formulario normalizado en el que se detallen los números de crotal de los animales pertenecientes a la explotación muertos como consecuencia de la EHE desde el 1 de septiembre de 2023 e indicación de si tienen o no Carta Genealógica.

2. Ayudas por repercusiones o secuelas en el estado productivo y/o reproductivo de los animales:

* Formulario normalizado en el que se detallen los números de crotal de los animales que han recibido tratamiento frente a la EHE.

* Una receta veterinaria expedida desde el 1 de septiembre de 2023 por el veterinario que prestó la asistencia veterinaria para el tratamiento de la EHE, por cada uno de los animales que recibieron el citado tratamiento.

* En el caso de que la receta veterinaria no recoja los números de crotal completos de los animales tratados, el/la solicitante deberá adjuntar documento normalizado firmado por el veterinario en el que se declara que las recetas a las que se hace mención en apartado anterior, fueron expedidas para el tratamiento de animales con sintomatología compatible con EHE y número de crotal de los mismos.

Por lo demás, para la acreditación del cumplimiento de los requisitos y la determinación de la cuantía de las ayudas, el Departamento de Equilibrio Territorial Verde verificará, a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae-nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público:

— El cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

— La inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de Gipuzkoa.

— La información obrante en el Registro de Identificación Individual de Animales.

— La base de datos de recogida de animales muertos en explotación para destrucción.

— La base de datos de notificación de casos y muerte por EHE.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

6. Publicación.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2023-07923

Gipuzkoako Foru Aldundia
Lurralde Oreka Berdeko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Equilibrio Territorial Verde

ZIURTAGIRIA / CERTIFICADO

APARTEKO LAGUNTZAK, GAIXOTASUN HEMORRAGIKO EPIZOOTIKOAK (GHE) ERAGINDAKO GIPUZKOAKO ABELTZAINTZAREN SEKTORERAKO.

AYUDAS EXTRAORDINARIAS AL SECTOR GANADERO DE GIPUZKOA AFECTADO POR LA ENFERMEDAD HEMORRÁGICA EPIZOÓTICA.

…… albaitariak, …… elkargokide zenbakia duenak,

D/Dª……, en calidad de veterinario, con número de colegiado ……,

ZIURTATUA

Irailaren 1aren ondoren, …… (ustiategi zk.) ustiategia bisitatu du, eta …….. behi aziendako (animalia kopurua) animaliak tratatu ditu gaixotasun hemorragiko epizootikoaren sintomei dagokienez. Horien belarritako zenbakia beheko taulan adierazten da.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, ziurtagiri hau sinatzen dut.

CERTIFICA

Que con posterioridad al 1 de septiembre ha visitado la explotación (n.º de explotación) ……, y que ha tratado a ……. (n.º de animales) vacunos, cuyo número de crotal se relaciona en la siguiente tabla, frente a los síntomas de la Enfermedad Hemorrágica Epizoótica.

Y para que conste a los efectos oportunos, firmo el presente certificado.

Lekua/ Lugar:

Data / Fecha:

Sinadura /Firma:

Krotal zk. / N.º de crotal	Krotal zk. / N.º de crotal	Krotal zk. / N.º de crotal

EK\CV GAO-I-2023-07923